

ERREDAKZIOA

1. KONTZEPTUAK

1.1 Zer esan nahi dute EGM siglek, gaztelaniaz?

- a) Estudio General de Medios
- b) Encuesta General de Medios
- c) Estadísticas Generales de Medios
- d) Evaluación General de Medios

1.2 Zer da Teleprónter?

- a) Aurkezleari pantaila edo ispilu batean islatzen den testua irakurtzeko aukera ematen dion gailua
- b) Aurkezleari zuzenean ematen ari diren irudia ikusteko aukera ematen dion gailua
- c) Aurkezleari kamera aktiboen grabaketa erakusten dion gailua
- d) Aurkezleari unean erabiltzen ari den kamera erakusten dion gailua

2. LAN OROKORRAK

2.1 Gaur Euskal Herrian indarkeria matxistako kasu bat egon da, eta albiste hori garatu eta tratatzeko izendatu zaituzte. EITBren Estilo Liburuaren arabera, adierazpen hauetako zein saihestu beharko litzateke?

- a) Genero-indarkeria
- b) Indarkeria sexista
- c) Emakumeen aurkako indarkeria
- d) Bikote-indarkeria

2.2 Immigrazioari buruzko albiste bat garatu edo tratatzeko izendatu zaituzke. Adierazpen hauetatik zein da egokia, EITBren Estilo Liburuaren arabera?

- a) Paper gabeak
- b) Agiri gabeak
- c) Egoera irregularrean daudenak
- d) Ilegalak

3. EITB TALDEAREN EZAGUTZA

3.1 Nork aurkeztu ohi du Amarauna saioa?

- a) Edurne Ayusok
- b) Gorka Otaegik
- c) Jon Basagurennek
- d) Arantxa Arzak

3.2 Euskaldunen iritz publikoaren eta boto-asmoaren datuak ezagutu behar izanez gero, aukera hauetako zeinetara jo behar da?

- a) EITB Focus
- b) EITB Data
- c) EITB Lab
- d) EITB Center

4. SAREA/ ERAGILEAK

4.1 Itsas teknologiarri eta zientziari buruzko aditu baten iritzia ezagutu edo informazioa behar izanez gero, agente hauetako zeinekin jarri beharko litzateke harremanetan, horretaz duen ezagutza dela eta?

- a) Neiker
- b) Vicomtech
- c) Tekniker
- d) Azti

4.2 Zer da ADEGI?

- a) Gipuzkoako enpresen interesak batzen eta ordezkatzeko dituen erakundea
- b) Bizkaiko enpresen interesak batzen eta ordezkatzeko dituen erakundea
- c) Arabako enpresen interesak batzen eta ordezkatzeko dituen erakundea
- d) EAeko euskal enpresarien interesak batzen eta ordezkatzeko dituen erakundea

5. GAURKOTASUNA

5.1 Zein da Durangoko Azokaren antolatzaile nagusia?

- a) Gerediaga
- b) Berbaro
- c) Herria auzo-elkartea
- d) Dendak Bai

5.2 Zenbat legebiltzarkide daude Eusko Legebiltzarrean?

- a) 75
- b) 70
- c) 65
- d) 80